

Bihartik aurrera, “Olagibelen Gasteiz” erakusketa ikusi ahalko da Montehermoson

“Pilar Aróstegui” Udal Artxiboak antolatu du, eta ekainaren 24ra arte egongo da ikusgai

Kultura, Hezkuntza eta Kirol zinegotzi Estíbaliz Cantok “Olagibelen Gasteiz” erakusketa aurkeztu du gaur, Gasteizko arkitekto neoklasiko ospetsua hil zeneko bigarren mendeurrena gogoratzeko ekitaldien barruan; Montehermoso kulturunean jarriko da ikusgai, bihartik, apirilak 20, ekainaren 24ra arte.

Cantok esan duenez, *“ez dugu gai hoberik topatu Artxiboaren bi urtean behingo erakusketarako Olagibel eta haren garaiko Gasteiz baino”*. *“Erakusketa honetan —erantsi du— denboran zeharreko bidaia bat egin nahi izan da hark sortutako kale eta plazetatik, eta agerian utzi nahi izan da haren lanak eta sortzerakoan pentsatu ziren erabilerek duten garrantzia eta iragangaiztasuna. Hartara, omenaldia egiten zaio Olagibeli, Gasteiz elkarrekin bizitzeko hiria bihurtu baitzuen”*.

Hainbat egileren 62 argazki biltzen ditu erakusketak, eta horien osagarri beste lan batzuk jarri dira: 1915ean Isaac Díez Ibáñez margolariak arkitekto eta urbanista handiari egindako erretratua, “Plaza Berriaren ikuspegia” (1855) eta “Gasteizko antzinako ikuspegia” (1862) deritzen koadroak, Juan Ángel Sáez Garcíarenak, eta Obdulio López de Uraldek 1948ko jai egitaraurako egindako jatorrizko akuarela. Orobat, Olagibelen eta Díez de Güemesen planoen kopiak jarri dira erakusgai, eta barruan zenbait dokumentu dituzten bi beira-arasa, orain ikusiko ditugunak.

Montehermoso albergará desde mañana la exposición “La Vitoria-Gasteiz de Olaguibel”

Organizada por el Archivo Municipal “Pilar Aróstegui”, estará en el Centro Cultural hasta el 24 de junio

La concejala de Cultura, Educación y Deporte, Estíbaliz Canto, ha presentado hoy la exposición “La Vitoria-Gasteiz de Olaguibel” enmarcada dentro de los actos y actividades del bicentenario del fallecimiento del célebre arquitecto neoclásico vitoriano, que estará expuesta en el Centro Cultural Montehermoso desde mañana 20 de abril y hasta el 24 de junio.

Canto ha asegurado que *“no encontramos temática mejor para realizar la exposición bienal del Archivo, que la figura de Olaguibel y su Vitoria-Gasteiz”*. *“Una exposición –ha continuado– que está planteada como un viaje a través del tiempo por las calles y plazas creadas por él y constata la importancia y perdurabilidad de su obra y de los usos para los que fue concebida. Un homenaje a Olaguibel, el arquitecto que podríamos decir que convirtió Vitoria-Gasteiz en una ciudad para convivir”*.

La exposición está compuesta por 62 positivos fotográficos de diversos autores que se completa con el retrato del insigne arquitecto y urbanista, pintado en 1915 por Isaac Díez Ibáñez, 2 cuadros con las vistas de la Plaza nueva (1855) y Visita antigua de Vitoria (1862) de Juan Ángel Sáez García, y la acuarela original de Obdulio López de Uralde del cartel de fiestas de 1948. Así mismo se exponen reproducciones de los planos de Olaguibel y Díez de Güemes, y 2 vitrinas con diversos documentos que podremos ver ahora.